

**KONTROL EKONOMIKO-NORMATIBOARI BURUZKO TXOSTENA,
ENPLEGUAREN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina. Testu horren III. tituluaren IV. kapituluan kontrol ekonomiko-normatiboa arautzen da: nahitaez egin beharrekoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion kontrol-txostena emanda gauzatzen da.

Kontuan izanik aipatu araua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluko 3. atalak xedatu duena, eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4.a) artikulua dioena, honako txosten hau ematen da:

TXOSTENA**I. GOGOETA OROKORRAK**

1. Txosten hau Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektuari (aurrerantzean, EELA) buruzkoa da, eta honako hauek arautzeko helburua du:
 - Enplegarritasuna hobetzeko, pertsonen eskubide eta betebeharrak zehaztea.
 - Botere publikoek enplegu-politiken arloan jarduteko bete behar dituzten printzipioak zehaztea.
 - Euskal Enplegu Sarearen sortzea.
 - Zerbitzu-zorroa eta enplegarritasuna hobetzeko programa osagarriak antolatzea eta kudeatzea.

Halaber, honako helburu hauek ere baditu:

- Enplegu-gaietako eskumenak zehaztea.
- Enplegu-politika publikoen inguruko gobernantza, plangintza, parte-hartzea eta finantzaketa zehaztea.
- LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua arautzea.

Horretarako, dagokion espedientea ireki da, eta izapidetzean Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoari jarraitu zaio¹. Espedientea bulego honen esku jarri da, bide telematikoaz, kontrol ekonomiko-normatiboaren izapidea gauzatzeko.

2. Aurreproiektuak, bere edukien arabera, zuzeneko lotura du Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearekin, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearekin. Horiek guztiak ez dira bakarrik, baina bai garrantzitsuenak, EELAn jorratzen den arloetatik, eta aztertzen ari garen aurreproiektuaren xedapen jakin batzuekin lotzen diren elementuak jasotzen dituzte, lege horiek zehazki aipatzeaz gain artikuluen atalean.

EELAk hau adierazten du azalpen-zatian: *EELA eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legeak «gizarte-babeserako ekosistema komun baten parte dira, EAEn pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka irmoki borrokatzen duena; horrela, Gizarte Segurantzaren langabezia-prestazio eta -sorospenekin batera, langabeziaren eta prekarizazioaren ondorioak moteltzen dituzte, enplegu-politiken eta -zerbitzuen ekintza espezializaturako pizgarria izateko, lan duina lortze aldera».*

Horri dagokionez, EELaren VI. tituluak –Lanbideri buruzkoak– diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako sistema osatzen duten laguntzen kudeaketan izango duen eragina aipatu behar da. VI. titulu horretan jorratzen da, hain zuzen ere, Lanbideren pertsonifikazio juridikoaren aldaketa, gaur egun

¹ EELA izapidetzeko datak kontuan hartuta, ez zaio aplikatu behar ekainaren 30eko 6/2022 Legea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena; izan ere, aurreproiektu honi dagozkion jarduketa asko baino geroago jarri da lege hori indarrean

administrazio-erakunde autonomo gisa duen eraketatik zuzenbide pribatuko ente publiko gisa proiektatutakora, hain justu, txosten honen alderdirik garrantzitsuenetako bat izanik ekonomiaren eta antolamenduaren ikuspegitik.

Aurrekoarekin lotuta, kontuan izan behar da EAEk duela gutxi hartu duela bere gain Lanbidek gauzatzen duen bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kotizazio gabeko prestazioaren kudeaketa.

3. Txertatutako dokumentuak aztertu ondoren, uste dugu formalki bat datozela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomia-kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. eta 43. artikuluetako aurreikuspenekin, eta agiri horiek informazio nahikoa biltzen dutela bulego honek ekonomia-kontrola egin dezan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 25., 26. eta 27. artikuluetan xedatutakoaren arabera; azpimarratu behar dugu, halaber, aipatutako kontrolak barne hartuko duela, ekonomiaren eta antolamenduaren alderdiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko erakunde eta entitateen sorrera eta ezabapen ororen fiskalizazioa, baita horren aldaketak eta berregituratzeak ere.

Aurrerago, gai horri xehetasunez heltzen bazaio ere, zera aipatu behar da, toki-eremuan izan lezakeen eraginari dagokionez, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena eman ondoren, sail sustatzaileak Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak EELari buruz egindako txostenaren balorazio-dokumentu bat sartu duela (2022/10/12koa da txosten hori). Horri dagozkion esku-hartzeak Tokiko Gobernuen Batzordearen 2022/10/18ko bilerako aktan islatutako desadostasunekin itxi dira. Arestian adierazitako batzordea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 90. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz egin zen.

Ildo beretik, aipatu behar dugu, Lanbideri buruzko VI. tituluan jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta, espedientean jasota dagoela Lan Harremanen Zuzendaritzari egindako eskabide bat (2022/06/09koa). Eskabide horren hasierako emaitzarik ez zen lortu, eta 2022/12/14an errepikatu egin zen; txosten hau eman dugun egunean oraindik ez dugu haren emaitzaren berri izan. Gure ustez, eskabide hori Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen (ESPL) 6.3 artikuluan aurreikusitakoa betetzera bideratuta dago.

Era berean, azpimarratuko dugu agiri hauek sartu direla: kontrol ekonomiko-normatiborako nahitaezko memoria ekonomikoa, Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 8/2022 txostena eta enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena.

Ekimenaren izapidetze formalari dagokionez, ohartarazi behar dugu ESPLk elementu gehigarriak sartu dituela, eta kasu horretan aplikatu beharrekoak izango direla elementu horiek. Bereziki, ESPLren 43. artikuluko aurreikuspenak aipatu behar ditugu, zeinak, orain interesatzen zaizkigun ondorioetarako, honako hau ezartzen baitu:

«43. artikulua. Entitateak eratzeko prozedura orokorra.

3. Artikulu honetan aipatzen diren enteak sortu eta eratzeko, hasierako jarduera-plan bat eduki behar da lehenik eta behin, eta gutxienez alderdi hauek bildu behar ditu plan horrek:

.../...

f) Funtzionatzeko beharko diren giza baliabideen aurreikuspena, funtzio publikoaren arloko eskumena duen sailaren titularraren txosten loteslearekin.

.../...

4. Aurreko apartatuetan aipatutako hasierako jarduera-planak eta ekonomia- eta finantza-azterketak beharrezko izango dute ogasun- eta aurrekontu-gaietako eskumena duen sailaren titularraren nahitaezko

txostena. Sailaren titularrak, bestalde, txosten osagarriak eskatu ahal izango ditu».

Azkenik, agerian utzi behar dugu ESPLren 43.1 artikulua honako hau ere aurreikusten duela:

«43.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ez, beste erakunde batzuk eratzeko, Eusko Legebiltzarraren lege bat edo Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat onartu beharko da, hurrengo artikuluetan erakunde-mota bakoitzerako ezartzen denaren arabera. Lege edo dekretu hori, bestalde, batera izapidetu beharko dute, kasu bakoitzean, Administrazio Orokorrean ogasun-gaien eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak».

4. Txosten honen ondorioz garrantzitsuenetarako, funtsean, memoria ekonomikoaren edukietara joko dugu, espedienteari erantsitako dokumentu ugariak alde batera utzi gabe, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua berregituratzeko aurreikuspenak gure ondorioetarako duen garrantzia berretsiko dugu, baita aurreproiektuan jasotzen diren antolamendu-izaerako beste eduki batzuk ere.

Nolanahi ere, ekimenaren eragin ekonomiko hori ekarriko duten ezaugarri esanguratsuenak azpimarratu behar dira:

- Foru- eta udal-eremuek bere gain hartutako eskumenak eta funtzioak, «Enpleguaren Euskal Sistema» deritzonaren esparruan.
- EESaren barneko zerbitzu-zorroko prestazio jakin batzuk eskubide subjektibotzat aitortzea (enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonaleko zerbitzuak, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua egiteko zerbitzuak) eta aitortutako prestazio guztiak gauzatzea.
- EESaren konfigurazioa eta, bereziki, EAEko Administrazio organoetara lotutako funtzioak.

- EESaren barneko enplegu-politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren ikerketa, berrikuntza eta ebaluaziorako funtzioekin lotutako aurreikuspenak.
 - Behar eta eskari berriak, Lanbide-EEZko zerbitzuak –langileei zuzendutakoa– emateko eredia behar bezala betetze aldera.
 - LANBIDE-EEZ erakunde autonomo izatetik zuzenbide pribatuko ente publiko izatera igarotzea. Eraldaketa horren ondoriozko premiak, baita Administrazio Orokorrak eskaintzen dituen euskarri komunei dagokienez egungo izaera galtzearen ondoriozko baliabide berriak izan beharraren ondoriozkoak ere.
5. Aurreko gogoetak egin ondoren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren analisia egiten da jarraian, Kontrol Ekonomikoko Bulego honi dagozkion ondorioetarako. Garrantzi bereziko bi alderdi nabarmentzen dira horren harira, eta, lehenik eta behin, alderdi horien analisi zehaztua gauzatu nahi dugu:
- LANBIDE-EEZ erakunde autonomo izatetik zuzenbide pribatuko ente publiko izatera igarotzeko proposamena
 - EAEko erakunde-mailen arteko eskumen-banaketa eta banaketa horri ematen zaizkion finantza-soluzioez egiten den tratamendua, bereziki, bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzaren Funtzaren tratamendua.

II. LANBIDE-EEZ ERAKUNDE AUTONOMO IZATETIK ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO IZATERA IGAROTZEKO PROPOSAMENA.

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua EA izatetik ZPEP izatera igarotzeari dagokionez, gai horren inguruan izan duen ibilbidea hartu behar dugu abiapuntu. Hala, ezinbestekoa da gogoratzea abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bidez LANBIDE ZPEP gisa eratu zela, baina 3/2011 Legearen bidez EA kalifikaziora zuzendu dela; egokitzapen horri eutsi zaio gaur egunera arte.

Lanbide ZPEP gisa eratzeko lehen proposamen horren aurkako iritzia eman zuen jada bulego honek 2009ko urriaren 27ko txosten bidez, 2010eko ekitaldirako aurrekontu orokorren lege-aurreproiektuari buruz; hori horrela, erabat indarrean daude orduan azaldutako argudioak baina, aitzitik, eguneratu egin behar dira, gutxienez, orain dela gutxiko Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeari (ESPL) dagokionez; gure ustez, araubide murriztaileagoa jaso du horrek, «administrazio-zuzenbidetiko ihes egitea» deritzon portaeren indarrez.

Garai hartan azaldutako argudioei gagozkiela, honako hau aipatu behar dugu gaur egun:

«(...) Ogasunaren arloko legearen helburua ez da, beraz, aurrez ezarritako mota juridiko desberdinen katalogo batetik pertsonifikazio zehatz bat aukeratzeko ahalmena arautzea, ente instituzional berria era batera edo bestera sailkatzeko, ezta erakunde jakin baten zereginen zuzenbide publikoa edo pribatua esleitzeko ahalmena erregulatzea ere (hori lehendik ezarrita dago dagokion gaia arautzen duen araudi substantiboan –batzuetan, legegile autonomikoak ez du horretarako erabakimenik, esaterako kontratazio publikoaren arloan, edo 56/2003 Legeak arautuetako askotan², dena delako erakundeak aplikatu egin behar baitu–), eta, ondorioz, nortasun juridiko bat edo bestea ematea, nahi bezala».

«Alderantziz da: erakundearen egungo zereginetan zuzenbide publikoa nagusi bada (edo berehala egingo direnetan; ez etorkizunekoetan, legeak kalifikazioa alda baitezake hori esleitzeko baldintzak aldatzen direnean), zehaztapen baten aurrean egongo gara, eta, bestela, beste baten aurrean.

Argiago esanda, kontua da aztertzea ea ZPEP baten aurrean edo erakunde autonomo baten aurrean gauden, bere zereginen aplikazioa

² Enpleguari buruzko 56/2003 Legea, gaur egun indargabetua; ondorio horietarako indarrean dago urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enpleguari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena

dakiekeen zuzenbidearen arabera, zereginok funtzionalak edo prestazionalak izan».

Ezinbestean egiaztatu behar da zein esparru funtzionaletan garatuko den dagokion erakundearen jardura. Ildo horretan, EELAk 88. artikuluan txertatzen ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari esleituko zaizkion funtzioak, eta zera egiaztatu da, orain arte betetzen zituenez gain, garrantzi berria hartzen dutela enplegarritasunari eta zerbitzu-zorroari buruzko aipamenek, EELAk berak EAEko Administrazioari dagokion eskumen-eremuaren barruan ezartzen dituenek, hain zuzen.

Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak jasotzen du Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-prestakuntzaren arloan lanlegedia betearazteari dagokionez Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egiten dituen funtzioak eta zerbitzuak. Baldintza horrek agerian uzten denez, edozein enplegu-zerbitzu publikoren balizko gune funtzionala, eta, bereziki, araudi honetan jasota dagoena, erakunde autonomo gisa uztartzen da bere izaera naturalean zein juridikoan, eta, beraz, zuzenbide publikoari eta bere kontrolei lotuta behar du egon.

Gure ustez, enplegu-zerbitzuaren eraldatze-beharrizanei buruz adierazitako borondatea gorabehera, azpimarratu behar dugu indar kualifikatu nabarmenki handiagoa mantentzen dela ahalmen publikoak baliatzeari lotutako zerbitzu publiko eraginkorra osatzen duten funtzioetan enplegu-zerbitzu hori betetzeagatik espedientearen sustatzaileak ezarritako jarraibideen arabera sortu litezkeenetan baino; izan ere, horiek ez dira bateraezinak indarreko EA izaerarekin.

Hori dela eta, honako zehaztapen hauek aipatu behar ditugu:

- Ahalmen publikoen benetako gauzatzea osatzen duten politika publikoei –bereziki diru-sarrerak bermatzeko prestazioei eta enpleguari eta prestakuntzarekin uztartutako gainerako dirulaguntzen programei– lotutako aurrekontu-baliabideen bolumena.

- Garrantzitsuena zera da, gastuaren alderdiarekin ez ezik, itzulketetatik eratorritako diru-sarreraren alderdiarekin ere alderatzea; zehazki, baliabide publikoak direla kontuan izanik, itzulketa horiek eragiten dituzten funtsak bilketa-prozeduraren ahalmen publikoak baliatuz egin behar dira.
- Memoria ekonomikoak kostu gehigarri mugatua aurreikusten du ahalmen publikoak erabiltzea ez dakarten funtzioetarako.

Azken batean, ahalmen publikoak erabiltzearekin lotutako jardueraren garrantzia nolabait aztertu behar badugu, aurrekontu-betearazpenaren bolumenera joz gero, konturatuko gara jarduketa horien pisu espezifikoaren zenbatekoa den. Hala, dirulaguntzetarako eta gizarte-laguntzetarako zuzkidurak 2023rako aurreikusitako aurrekontu osoaren % 88,3 dira, baina horrek ez ditu barne hartzen 2. kapituluko (gastu arrunta) eta 1. kapituluko (langile-gastuak) kostuak, dirulaguntzen eta laguntzen politika horien kudeaketari egotz dakizkiokeenak (horrenbestez, aipatutako ehunekoaren handituko lukete).

Aurreko guztia kontuan hartuta, LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUARI dagokion benetako izaerari buruzko oinarritzko galdera errepikatu behar dugu. Gure ustez, jarduerak EELAn jasotako ahalmen publikoen esparruan duen eragin berezia ikusita, EA izaera da egokia, ez ZPEP izaera, entitate bat izanik, ez «funtsean» zuzenbide publikoak arautuko duena, baizik eta bere funtzioak betetzean zuzenbide publikoak «nabarmenki» arautuko duena, nola ikuspegi kualitatibotik hala ikuspuntu kuantitatibotik.

Horri dagokionez, LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN «berreraldaketari» buruzko oinarriak garrantzitsuenak biltzen dituen APIak LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN efikaziarik eta efizientziarik eza aipatzen ditu sistematikoki, ebidentzia-babes handiagorik gabe onartu behar diren axioma gisa, postulatu horren arrazoizko oinarriak jaso gabe. Administrazio Publikoaren efizientzia txikiagoa delako ustea gutxi gorabehera hedatuta badago ere, tautologikoki ezin da onartu baieztapen errepikakor hori, ez AMIA soil batean ez horri buruzko baieztapen huts

batzuetan oinarrituta bada. Gainera, ZPEPak prozedura gehien-gehienetan egokitu beharko du bere funtzionamendua egungo EAren formula eta arau berberetara; formula eta prozedura horiek, gehienbat, hartzaileen bermeak dira kasuan kasuko botere publikoaren okerreko jarduketan aurrean, eta prozedura zehatz batzuk ezartzen dizkiote, ezarritako bidetik kanpo jardutea mugatzeko.

Edonola ere, eta EA formularen efikaziarik eta efizientziarik ezaren adierazpen axiomatiko hori onartu gabe, adierazi behar dugu, nahiz eta, egia esan, izaera administratiboaren balizko kortseak eta zurruntasunak berrikusteko baldintza guztiz onargarria izango litzatekeen, ezin dela ahaztu formula publikoak badituela bermeak eta abantailak, autotutoretza-ahalmenak naturaltasunez erabiltzeaz haratago doazenak. Ildo horretan, jarraitutako bideen egokitasuna indartzeko kontrol-mekanismoak baloratu behar ditugu, oinarrizko printzipioak errespetatuz, hala nola tratu-berdintasuna, objektibotasuna, legezkotasuna eta segurtasun juridikoa (nola operadore juridikoentzat hala garatzen den jardueraren hartzaile diren herritarrentzat), baita zeharkako organoek hainbat alderdi –hala nola langileen kudeaketa zentralizatu, izapidetze elektronikoa, elkarreragingarritasuna, lan-segurtasuna eta abar– kudeatzeak ekar ditzakeen abantaila buruzko beste batzuk ere; hala, baliabide propio guztiak entitateak esleituta dituen funtzioetara bideratzea ahalbidetuko lukete abantaila horiek. Administrazio-prozedura aplikatzea eta haren eraginpean jartzea ezin da *per se* efikaziarik edo efizientziarik eza eragiten duen gaitz edo elementutzat hartu. Ondorio horrek alde batera uzten ditu prozedura asko izateak dakartzan efikaziaren eta efizientiaren abantaila gehigarriak; izan ere, ugaritasun horrengatik aurreikusgarria da dagokion erakundearen jarduna eta ahalmenak nahieran erabiltzea mugatzen du. Azken batean, eta EAren efikazia eta efizientzia txikiagoa ondorioztatzeko parametrorik ez badago ere, azpimarratu behar dugu balorazio horretan esparru juridiko-administratiboak eskaintzen dituen bermeei eman behar zaien garrantzia, inplikaturako herritarrei eta politika publiko horien kudeatzaileei dagokienez.

Aztergai dugun kasuan, badirudi kortse horiek ezabatzea (kontabilitatea eta aurrekontu publikoa, aldez aurreko kontrol kontu-hartzailea, etab.) izan dela helburua, tipo juridiko bat edo beste bat aukeratzeko, gure ustez, aukera horretarako funtsezko erreferentea zein den erreparatu gabe, hau da, garatu beharreko jarduketan benetako izaera nolakoa den eta zein eremutan – publikoan ala pribatuan– duten egokitzapen onena.

2.- Maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zuzenbide pribatuko ente publikoek zuzenbide pribatuari jarraituko diote hirugarrenetik harremanetan eta beren jardueraren garatzean. Gainera, zuzenbide pribatuko ente publikoek bi motatako diru-sarrerak dituzte: batetik, beren jardueraren gauzatuz lortzen dituztenak eta, bestetik, aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkienak. Eta kudeaketa-autonomiaz eta enpresa-kudeaketako irizpideak erabiliz betetzen dituzte esleitura dituzten funtzioak, eta hori ez dator bat Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardueraren nagusiarekin; izan ere, Lanbideak dirulaguntzen eta prestazioen bidez gauzatzen du bere jardueraren % 88,3, eta administrazio-ahalmen publikoa dira halakoak, eskumen bat gauzatzearekin lotutako helburu jakin batzuk lortzeko sustapen-teknikak baitira, eta, beraz, administrazio-botere publikoaren adierazpena dira. Ez da dirulaguntza-jardueraren LANBIDE-EEZk garatutako jardueraren izaera publikoa gailentzen dela egiaztatzeko parametro bakarra; izan ere, indarreko SPKLren arabera kontratazio-jarduerak, nolahi ere, kontratazio publikoaren eskema hartu beharko luke; kasu honetan, EAK eman ditzakeen administrazio-egintzen aurrean ZPEPak duen autotutoretza-gaitasunik ezak eragingo lioke.

Illo horretan, lege-proiektua izapidetzeko prozeduran egiaztatu egin behar da, nahitaez, 3/2022 Legearen 43.2 artikulua eskatzen duenaren arabera, lege honetan ezarritako tipologiaren artean hautatutako pertsonifikazio juridikoaren forma egokia dela, erakunde berriak garatuko dituen funtzioak edo jardueraren kontuan hartuta eta erakunde bakoitzerako lege honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik. Gure ustez, eta adierazitako guztia ikusita, ez da behar bezala egiaztatu hori; izan ere, erakunde berriak garatzen eta garatuko dituen funtzioak erakunde autonomo gisa garatu dituen berberak

dira, administrazio-zuzenbideari maila handi batean lotutako funtzio publikoak, hain justu, eta hori guztiz desegokia da ZPEP gisa duen ezaugarriei dagokienez.

3.- Esaten ari garena sostengatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa sortu eta eraldatzeko aplikatu beharreko printzipioak betetzearen inguruan Euskal Sektore Publikoaren Legean sortutako eskakizunak aipatu behar ditugu. Printzipio horiek lege-berritasun bat dira, baina ez praktika juridikoan, sektore publikoko erakunde horiei buruzko antolamendu-neurriei dagokienez jada horrela aipatzen baitziren, eta ESPLren 6. artikuluan jasotzen dira:

a) Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunari lehentasuna emateko printzipioa. Horren arabera, kasu honetan bakarrik sortuko dira nortasun juridiko propioa duten entitateak: Administrazio orokorreko administrazio-organo eta administrazio-zerbitzuen bidez ezin denean lortu bete beharreko interes orokorra edo eman beharreko zerbitzua. Kasu horretan, entitatea sortzeko arauak ezintasunaren arrazoiak azaldu beharko ditu.

b) Subsidiariorotasun-printzipioa. Horren arabera, entitateak eratzeko, lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio: lehenik, organismo autonomoak; bigarren, zuzenbide pribatuko ente publikoak, eta, soilik besterik ezean, entitate pribatuak. Organismo, ente eta entitate horiek sortzeko arauak behar bezala justifikatu beharko dituzte egindako hautuaren arrazoiak.

c) Instrumentaltasun-printzipioa, berariaz esleituta dauzkaten xede eta helburuei dagokienez.

Bereziki, subsidiariorotasun-printzipio espezifikoa erreparatu behar zaio; printzipio horren arabera, erakundeak eratzean, erakunde autonomoak aukeratuko dira ahal den heinean; bigarren aukera zuzenbide pribatuko ente publikoak izango dira. Azpimarratu behar dugu ZPEP gisa berrantolatzeak arrazoiak ez daudela aski funtsatuta, justifikazio eztabaiaezina eskaini

beharko lukeen arren, LANBIDE-EEZk jada jasan du-eta ZPEPtik EArako aldaketa (hasierako zuzenketa) eta beste autonomia-erkidego batzuetako gainerako enplegu-zerbitzu publikoekiko konparazioa egin ondoren, kontuan izanik ESPLk finkatu egiten duela EAren formula lehenesten duela ZPEParen formularen aurretik. Adierazi behar dugu, halaber, ezin daitekeela argudiatu egungo figura juridikoarekin ezin direla helburuak lortu, alde batera utzi gabe ez direla egiaztatu efikazia eta efizientziarik ezaren argudioak.

Halaber, gure ustez ez da betetzen, ezta ere, instrumentaltasun-printzipioa, zeinak sustatzen baitu erakunde sortu berriek, bestalde, jarduteko edo funtzionatzeko behar duten formarik egokiena hartuko dutela, lege honetan erakunde bakoitzarentzat arautzen diren printzipioen arabera.

4.- Proposatutako eraldaketak, halaber, aipatutako ESPLren 53. artikuluko postulatuei eragingo lieke, honako hau xedatzen baitu: *«Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolaketa eta egitura zainduko ditu haren entitateei gomendatzen zaizkien xede publikoetara behar bezala egokitu daitezten, eta sektore publikoaren antolaketa berregituratuko du hala eskatzen dutenean lege honetan ezarritako printzipioak betetzeak eta efikaziaren eta efizientiaren ebaluazioen emaitzek zein baterako ebaluazioaren emaitzek».*

Aurreko puntuan ondorioztatu dugun bezala, uste dugu printzipioek ez dutela hori eskatzen; alderantziz, printzipioei eustearekin bat datoz, eta atal honetan gaineratu dugu egungo erakunde autonomoaren efikaziaren eta efizientiaren benetako ebaluaziorik –proposatutako berregituraketa behar bezala justifikatzen duenik– ere ez dagoela, eta lehen aipatutako axiomara mugatzen gara; alegia, efikazia eta efizientzia handiagoaren ustezko bilaketa, zeinak ez baitu beste babesik, ez bada premisa horren beraren errepikatze hutsa.

5.- Antolaketa- eta ekonomia-kontrolari dagokionez, eta, ondorioz, ogasun publikoaren eta Administrazioak zerbitzatzen dituen eskubide orokorren interesei eta osotasunari dagokienez, erakunde autonomoek guztiz betetzen

dituzte aurreikusitako kontabilitateko eta kontu-hartzaitzako kontrol guztiak, ekonomia- eta zerga-kontrola barne; hain zuzen ere, onuradunaren aldeko eskubide ekonomikoa aitortu aurreko unean dihardu horrek, hau da, funts publikoak irten aurretik, espedientearen izapidetzea kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeriarekin bat datorrela bermatze aldera (urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 25. artikulua). Esku-hartze hori ezin da efikazia- eta efizientzia-galeratzat hartu, baliabide publikoak dagozkien Aurrekontu Orokorretan bildutako helburuetara behar bezala egokitzen direla bermatzen baitu. Organo kualifikatu baten esku-hartzea, zeinaren helburua, hain zuzen ere, proiektaturiko gastua lege- eta prozedura-arauetara egokitzen dela egiaztatzea baita, nola administrazioaren borondatea osatzerakoan, hala kopuruak zertarako eta nola banatu zehazterakoan, ezin da esan efikaziarik eta efizientziarik gabea dela. Are gehiago, gai horri buruz honako hau da nabarmentzekoa: ZPEPen izaerako erakundeek edo zuzenbide pribatuaren mendeko beste erakunde batzuek funtzio publikorik betetzen ez zuten garaikoa bada ere Administrazio honetan indarrean dagoen ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko araudia, ekonomia- eta zerga-kontrolaren eraginpean jarri edo ez aztertu beharko litzateke, ez dagokion gastua egiaztatzen duen subjektuaren tipologiagatik, baizik eta jardueraren beraren tipologiagatik, ahalmen publikoak erabiltzeari dagokion gastu guztia kontrol horren eraginpean geratu beharko litzatekeela ulertuta (dirulaguntzen programen ekonomia- eta arau-kontrolari dagokionez, osorik egiten den bezala). Hala, tipologiagatik ekonomia- eta zerga-kontrolaren eraginpeko gastu horien artean sartu beharko lirateke diruz laguntzeko programa horiek ebazteko proposamenak, gaur egun programa horri lotuta dauden kontratu mota guztien adjudikazioa eta Europako funtsei lotutako kudeaketa eta gastua. Azken apartatu hori ez da harritzekoa; izan ere, LANBIDE-EEZk, EA gisa gaur egun duen konfigurazioan nahiz eman nahi zaion ZPEPrenean, alde aurretik fiskalizatu behar ditu bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari dagokionez ematen dituen prestazioak.

Edonola ere, ekonomia-kontrolako araubidea ogasunaren gai propio bat denez, Ekonomia eta Ogasun Sailari dagokio lege-aurreproiektuan sartu

beharreko erregulazio-proposamena egitea. Kontrol-araubidea, LANBIDE-EEZk hartzen duen forma juridikoa edozein izanik ere, erakundearen jarduerari aplikatu beharreko araudia betetzea eta ekonomia- eta finantza-kudeaketa egokiak izatea bermatzeko doituena izan beharko da.

6.- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostenarekin bat etorritik eta sail sustatzaileak lan-kontratudun langileei aplikatu beharreko araudiaren malgutasunaren alde emandako argudioari erantzunez, adierazi behar da ahalmen publikoen medioz gauzatutako jarduketak funtzionarioek egin behar dituztela nahitaez. Hain zuzen ere, Enplegatu Publikoaren Estatutuaren 9. artikulua hau xedatzen du: *«Nolanahi den ere, ahal publikoak baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzeko zereginetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen duten funtzioak betetzea funtzionario publikoei dagokie, modu esklusiboan, betiere, administrazio publiko bakoitzean arlo hori garatzeko legean ezarritakoari jarraituz».*

Horri dagokionez, adierazi behar dugu LANBIDE-EEZren egungo aurrekontu-plantillak guztira 1.078 funtzionario-lanpostu aurreikusten dituela 2023rako EA horren plantillan.

Ezin da alde batera utzi, beraz, ZPEPek funtzionarioak izan behar dituztela dirulaguntza eta kontratuko jarduerari datxekien funtzio horiek gauzatzeko; izan ere, funtzionarioei ahalmen publikoak kentzeak, lan-kontratudun langileei esleitzeko, funtzio horiek gauzatzean objektibotasun, inpartzialtasun eta independentziaren bermea haustea ekartzeko arriskua dakar berekin, baita ondorio juridikoak ere, hala nola epaileek laguntza-programa edo administrazio-kontratua baliogabetzeko arriskua, lehen transkribatutako arauak urratzeagatik. Horrela, LANBIDE-EEZren jarduera nagusiaren izaera kontuan hartuta, dirulaguntzen eta laguntza ekonomikoen prestazioaren jarduerarekin lotuta, berriro esan behar dugu funtzionario publikoei dagokiela jarduera horiek kudeatzea. Izan ere, paradoxa bat nabarmenduko litzateke: batez ere funtzionario publikoz osatutako ZPEP bat izango litzatekeela, hain justu. Horrek kausa bakar bat izan dezake: erakunde

instrumentalaren pertsonifikazio juridiko desegoki bat, hain justu, eta, apartatu honen hasieran adierazi den bezala, erakunde horren jarduerari doitzen zaiona izan beharko da.

7.- Azkenekoz adierazita ZPEP kalifikazioa ez dela bete behar dituen funtzioengatik benetan dagokion izaera, segurtasun juridikoko arrazoiengatik eta ogasun publikoaren eskubideen alde, honako hau adierazi behar da: ZPEPei dagokienez, ez dago eremu juridiko argirik esparru horietarako beharrezko eta nahitaezko diren funtzio publikoak aurreikusi eta antolatuko dituenik (dirulaguntzen jardueran inplikaturako baliabide publikoak kontrolatu, bideratu eta berreskuratzea [premiamentu-bidea Ekonomia eta Ogasun Sailarekin egindako hitzarmenen bidez eratu behar da, eta zehapenen ezarpenak epe jakin batean dirulaguntzak lortzeko eta Administrazioarekin kontratatzeko aukera galtzea ekar lezake]); horren ondorioz, baliabide publiko horien hirugarren hartzailleak araubide juridiko desberdinen eraginpean daude (subjektu emailearen arabera, sailaren edo erakundearen arabera); horrenbestez, berdintasun- eta objektibotasun-printzipioa urratzen da, edo funts publikoak azkenik ezin dira behar bezala kontrolatu, ZPEP bat bada ere laguntza ematen duena, eta ez, ordea, administrazio-erakunde bat (dela Administrazio Orokorra dela erakunde autonomo bat).

8.- Azkenik, memoria ekonomikoak LANBIDE-EEZren eraldaketari buruz egiten dituen aurreikuspenei dagokienez, EELaren VI. tituluaren bidez agerian geratzen da 800.000 euroko zenbatespen globala egiten dela; kostu hori, zehazkiago, «aholkularitza espezializatuko zerbitzuei» egozten zaie, behin memoria ekonomikoan horri buruzko zenbatespen bati heltzeko zailtasuna jasota dagoela. Memorian zehazten denez, aholkularitza-lan horiek (kanpoko enpresa batek beteko dituela ulertzen dugu) «funtzioak, prozesuak eta aplikazioak sortzeko eta mantentzeko lanak zehaztuko dituzte, LANBIDE-EEZk bere prozesuak –ekonomiko-aurrekontuzkoak, langile, kontratazio eta informatika eta komunikazioenak– kudeatzeko baliabideak izan ditzan».

Memoria ekonomikoak argi uzten du zenbatespen hori lehenengo ekitaldiari dagokiola, baina horrek ez du esan nahi, ZPEP bihurtuz gero, egiturazko kostutzat hartu behar ez direnik aurrekontuen, langileen eta kontratazioen esparru horiek kudeatzeko behar diren aplikazioak eta euskarriak mantentzekoak, mantentze-lanei eta baldintza horrek eskatzen dituen eguneratze eta garapen espezifikoei dagokienez. Horri buruz, kontuan izan behar da publiko orokorrari zuzendutako jarduketan bolumen handiak baliabideen bolumen handi bati eustera behartuko duela aurrez aurreko arretan eta arreta telematikoan, 39/2015 Legeak eskatzen duen moduan. Alderdi horiek guztiak kontuan hartu beharko dira ZPEP eraldatzeko.

Aurrekoarekin lotuta, argi utzi behar dugu ZPEP gisa kudeaketa efizienteagoa izan dadin garapen berrietarako gastu garrantzitsuak egitea oso kontraesankorra dela, kontuan izanik gaur egun EAn existitzen direla gainerako antolakundearekin partekatutako baliabideak (ekonomia- eta aurrekontu-prozesuak, langile-prozesuak, kontrataziokoak, etab.–).

III. EAE-KO BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEKIKO ESKUMEN-MUGAKETAN DUEN ERAGINA ETA ENPLEGURAKO ETA TOKI-GARAPENERAKO LANKIDETZA-FUNTSAREN BIDEZKO FINANTZAKETAREN TRATAMENDUA

1. EESaren barneko zerbitzu-zorroa kudeatzeko finantza-lankidetzak

Aurreproiektuaren edukiei dagokienez, eta gure ondorioetarako, ekonomian eta aurrekontuetan izan lezakeen eraginagatik, alderdi esanguratsua da EAEko gainerako erakundeetan izango duen eragina, eta, bereziki, toki-eremuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) ikuspegitik.

Espedientean jasotako dokumentazioaren artean hau dago: Tokiko Gobernuen Batzordearen esku-hartzea, 2022/09/28ko txostenaren bidez,

eta EUDELen esku-hartzea zirriborroari alegazioak egiteko fasean (2022/07/15eko dokumentua). Sail sustatzaileak dokumentu bat erantsi du, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak EELari buruz egindako txostenaren balorazioa (2022/10/12); horri dagokionez, Tokiko Gobernuen Batzordearen ordezkari eta sail sustatzailearen arteko Aldebiko Batzordearen 2022/10/18ko bilkuraren aktan jasotako desadostasunekin itxi dira esku-hartzeak. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen –EELen– 90. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako egin zen batzorde hori.

EUDELek egiten dituen gogoetetan, honako hauek azpimarratzen dira: toki-entitateei esleitzea, «*eskumen propio gisa, enplegu eta toki-garapeneko planak onartzea*» (64. artikulua, 77. artikuluan garatua), beren jardueraren eremuan 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrientzat eta gainerako toki-erakundeentzat betebehar gisa aurreikusten dena (udalerritxikiagoentzat hautazko aukera bat da jarduera ekonomikoa sustatzeko ekintza-programak onartzea), eta, gainera, bi urtez jarraian % 10etik gorako langabezia-tasa dutenentzat. Era berean, EELAk aukera ematen du behartuta ez dauden gainerako udalerriek beren borondatez kudea ditzaten 48. artikuluan aurreikusitako EESaren barneko zerbitzu-zorroko zerbitzuak. Hona hemen zerbitzu horiek:

- a) Orientazio-zerbitzuari dagokionez, enplegu-zentroen kudeaketa, baldin eta aktibaziorako babesa eta informaziorako, lagun egiteko, motibaziorako eta aholkularitzako zerbitzu eta programa pertsonalizatuak eskaintzen badituzte, 28.2.d) eta e) artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, bai eta lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuaren zerbitzua eskura jartzea ere.
- b) Enpresei aholkularitza emateko zerbitzuari dagokionez, honako hauek egin ahal izango dituzte: enplegu-eskaintzak lortu, beren lurraldeari lotutako enprekin zuzeneko harremana izan, haien beharrak aztertu eta identifikatu, eta laguntzei eta kontratazio-modalitateei buruzko informazioa eta aholkua eman.

Aurreikuspen horiek ETELen jasotako aurreikuspenetan funtsatuta jorratzen dira, baina Sail sustatzailearen eta Tokiko Gobernuen Batzordearen (TGB) artean desberdintasun bat mantentzen da EESaren esparruan esleitutako eskumenen tipologiari dagokionez. Horri gagozkiola, Sail sustatzaileak aipatu du legegileak gaitasuna duela ETELen 16. artikulutik eratorritako «klausula unibertsalera» jotzeko. Klausula horrek aukera ematen die udalerriei eta toki-erakundeei interesekoak zaizkien eta herritarren onerako izan daitezkeen zerbitzuak emateko, bi baldintzari jarraikiz betiere: bikoiztasunik eza eta jasangarritasuna.

TGBren ordezkariak adierazi du ETELen esparruan gai horri buruzko eskumen-tipologiari buruzko zehaztasunik ezak (eskumen propioak, eskuordetuak edo transferituak, ETELen 14.1 artikulua) argitasun falta dakarrela udalerriek EESean duten zereginari buruz eta, ondorioz, jarduketa horiek egiten dituztenen finantzaketari buruz.

Gai horrek gure ondorioetarako merezi duen iritzia alde batera utzita, gai horrek badu bere garrantzia aurreikusitako finantzaketa-mekanismoari dagokionez; izan ere, lau urteko lankidetzaren hitzarmenak izenpetzeko aukera aurreikusten du eskumen horiek baliatzeagatiko finantzaketa-formula gisa (beste lau urtez luza daiteke epe hori, gainera).

Illo horretan, ETELen 111. artikulua aipatu behar dugu, zeinak, baldintzarik gabe legokiekeenaz haraindiko finantzaketa-baliabide gisa, artikulua horretan diseinatutako bidea irekita utzi zuen, honela:

«111. artikulua. Baldintzarik gabeko finantzaketa. Salbuespenak.

1. Arau orokor gisa, EAEko udalerrien eta gainerako toki-erakundeen finantzaketa baldintzarik gabekoa izango da.

2. Toki Autonomiaren Europako Gutunean xedatutakoari jarraituz, baldintzatutako finantzaketarako mekanismoak salbuespenez baino ezingo dira ezarri, eta arauzko xedapen autonomiko edo arauzko foru-xedapen bidez, edo Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen edo foru-

erakundeen dirulaguntza-politika jakin baten bitartez. Honako irizpide hauek jarraitu beharko dira:

a) Toki-erakundeen parte-hartzearen printzipioa: araudi horren ondorioz Autonomia Erkidegoko edo lurralde historikoetako erakundeek toki-erakundeei zuzenduta egingo dituzten planek, lehentasunak ezartzeko orduan, toki-erakundeek ere parte hartu ahal izatea bermatuko dute, eta toki-erakundeen interesak, hala badagokio, Autonomia Erkidegoaren edo lurralde historikoen interesekin bateratzen saiatuko dira.

b) Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioa: urte anitzeko kudeaketa ekonomikoa erraztu beharko da, eta toki-erakundeak inbertsioak nola egin planifikatu ahal izango du, eta erabakitze edo hautatzeko orduan, udaleko jarduera-planak eta lehentasunak izango ditu kontuan, aplikagarria den aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko araudiarekin bat etorrita.

c) Zerbitzu publikoen efizientzia, efikazia eta kalitatearen printzipioak: finantzaketa baldintzatuko sistemen ondorioz eskainiko diren zerbitzuetan bermatuta egongo da hartzailleentzat kalitatezkoak direla, zerbitzua jasagarria izango dela eta eskaintzen jarraituko dela.

EELAn, 83. artikulua manu horretara igortzen du, eta, era berean, aipatutako printzipioen eraginpean dagoela adierazten du. Ezin da ahaztu edozein motatako finantzaketa duten hitzarmenak sinatzen direnean, dagokion prozeduraren eraginpean geratzen direla hitzarmen horiek, adosten den jarduketaren benetako izaera juridikoaren arabera, eta dagozkion prozedura-arauak aplikatzen zaizkiola. Bereziki, finantzaketa bat aurreikusteko aurreikuspena kontuan hartuta, dirulaguntzen araudia aipatu behar dugu. Kasu horretan, hitzarmen horien harira dagokion dirulaguntza emateko prozedura amaitzeko baliabide juridikoa aipatu behar da; halaber, dirulaguntzaren baldintzak eta zehaztapenak adierazi beharko dira hor. Kontuan izanik tresna eta bide juridiko horrek ezingo duela inoiz dagokion baliabidea ordeztu esleituta datorkion jarduketaren izaera juridiko eraginkorarekin, dagokion administrazio- eta gastu-prozeduraren

eraginpean geratu beharko da hura (ZPEP bat denean ere horiei aplikagarri zaizkien aurrekontu-gastuen araei jarraitu beharko die). Ildo horretatik, ez da egokitzat edo juridikoki bideragarritzat jotzen 83. artikuluan honetan aurreikusitako finantza-lankidetzak doitzeko erregelamendu-prozedura berezi bat aurreikustea; izan ere, prozedura hori izango da legedi arruntean oro har finkatutakoa, kontratuei, dirulaguntzei edo beste administrazio publiko batzuekiko gomendioei buruzkoa dela ere (ondorio horietarako, bereziki, behin eta berriz errepikatu den ESPL), eta, hala badagokio, dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzeko aukera egongo da, betiere arlo horretan aplikatzekoa den legeriaren eraginpeko erregelamendu-arau baten bidez.

Aurreko gogoeta 83.4 artikularen amaieran egiten den aipamenarekin lotu behar dugu, dirulaguntzen araudiaren aplikazioa ordezko izaera batera mugatzen baitu. Ezin dugu baliozkotzat jo aurreikuspen hori, berriz diogu ekimenaren izaera juridikoak zehaztuko duela legezko prozedura egokia. Are gehiago, kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak (DLO) oinarrizko arauen bolumen handia ezarri zuela, ezin da baztertu, ezta arau autonomiko baten eraginez ere.

Bestalde, sinatzen diren akordioak urte anitzekoak izateko behin eta berriz egindako eskakizunak une oro egongo dira hartutako konpromisoak babesten dituzten izaera horretako aurrekontu-kredituen benetako eskuragarritasunaren eraginpean. 83.4 artikularen enuntziatua, zeinak aurreikusten baitu ezen, hasierako aldia amaitzean (40/2015 Legearen arabera, 4 urte + 4 urte, gehienez ere, hitzarmen posibleetarako), lankidetzabaliabide berri bat zehaztuko dela, -2. paragrafoan aurreikusitako eta ETELen 111. artikuluan aipatutako printzipioen arabera finantzaketa bermatuko duena; edonola ere, dagokion kasurako bere garaian aplikatu beharreko legeriaren eraginpean egongo da baliabide hori, baina ezingo da inolaz ere izan prestazioaren izaeraren arabera legez ezarritako bideetatik kanpo ezartzeko gaikuntza bat.

Jarduketa horien bideragarritasun juridikoa alde batera utzita, azpimarratu behar dugu ez dela egokia finantzaketa-mekanismo baldintzatuak *sine die* mantentzea, finantzaketa-formula arruntean txertatzeko aukerarik gabe; beraz, gure ustez, eskumena ETELek aurreikusten dituen modalitateen barruan zehaztea izango litzateke egokiena, finantzaketa-mekanismo arruntean sartzeko bidea emanez betiere.

Gauzak horrela, gure ustez, ETELen ondorengo lege-proiektu baten barruan formula hori onartzeak desitxuratzea dakar berekin, Jaurlaritzaren beraren ekimenez lege-proiektu batean izan dadin. Lege-proiektu horrekin, Legebiltzarrari igorriko dio toki-erakundeei buruzko eskumen-eskema bat, ETELek eskumen propioak, eskuordetuak eta transferituak ezartzean ezarritako erakunde-mailen arteko eskumen-banaketaren planteamendu orokorrari heltzen ez diona.

2. Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzaren Funtza

Baldintzapeko finantzaketaren eremuan txertatzen den aurreikuspenaz haratago, garrantzi berezia du, gure ondorioetarako, EELAREN bigarren xedapen iragankorrean jasotako aurreikuspenak; izan ere, Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzaren Funtza bat sortzen du, urriaren 7ko 4/2021 Legearen indarraldiari lotuta (Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldira aplikatuko den metodologiari buruzkoa).

Funtza hori sortzen da, kasu honetan, lege honen arabera, udalerrien eta toki-erakundearen eskumenak direnak finantzatzeko, eta ETELen xedatutakoaren arabera zehazten da horien finantzaketa.

Horretarako, enplegurako eta toki-garapenerako planak egiten direla bermatzera bideratuko da Funtza, finantza-nahikotasunaren printzipioarekin bat etorritik. Bigarren xedapen iragankorrek, horren ondoren, funtsaren funtzionamendu-mekanismoa finkatzen du, honako hauei jarraituz:

- «a) Eusko Jaurlaritzak dagokion aurrekontu-kreditua izendatuko dio urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean.
- b) Toki-erakunde bakoitzak Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzak Funtsetik jasotzen dituen ekarpenak transferentzia izango dira, eta ez da aplikatzekoa izango dirulaguntzen arloko araudia.
- c) Toki-erakunde onuradun bakoitzari dagokion baliabide ekonomikoa esleitzeko, irizpide hauek aplikatuta lortzen diren zenbatekoak batuko dira:
- 1.- Langileen kostua: goi-mailako teknikari baten eta administrari baten lanpostuei dagozkienak hartuko dira halakotzat.
 2. Baliabide materialak: aurreko apartatuan aipatutako lanpostuei lotutakoak hartuko dira kontuan hartuko dira halakotzat.
 - 3.- Gauzatze-kostuak: kontuan hartuko dira diagnostiko- eta ikerketa-faseei, analisi-faseari, tokiko garapen-estrategia prestatzeko faseari, proiektuak zehazteari eta ebaluazio-faseari lotutako gastuak.
 4. Biztanle kopuruaren arabera haztapena: 1. eta 2. apartatuetako zenbatekoak biztanle kopuruaren arabera haztatuko dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-eroldaren zifrak kontuan hartuta, arau hauen arabera:
 - 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak: $(1^{\circ}+2^{\circ}+3^{\circ}) \times 1$.
 - 20.001 eta 50.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak: $(1^{\circ}+2^{\circ}+3^{\circ}) \times 1,4$.
 - 50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak: $(1^{\circ}+2^{\circ}+3^{\circ}) \times 1,8$.
 - 100.001 eta 200.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak: $(1^{\circ}+2^{\circ}+3^{\circ}) \times 2,3$.
 - 200.000 biztanletik gorako udalerriak eta toki-erakundeak: $(1^{\circ}+2^{\circ}+3^{\circ}) \times 3$.

5. Enplegurako eta toki-garapenerako planak kuadrillei, mankomunitateei edo elkarte-oinarriko beste toki-erakunde batzuei buruzkoak direnean, aurreko zenbakietan ezarritako arauak aplikatuko dira. Biztanle kopuruaren arabera haztapena dagokion toki-erakundeko biztanle guztiak kontuan hartuta egingo da.

Baldin eta, zenbaki honetan xedatutakoa aplikatuta, toki-erakundearen finantzaketa udalerrri bakoitzari 1. zenbakitik 4.era aurreikusitako arauak aplikatuta legokiokeena baino % 20 txikiagoa bada, % 20 handituko da toki-erakundearentzat ateratzen den azken zenbatekoa.

- d) Aurreko apartatuan aipatzen diren irizpideak aldatzeko aukera izango du Eusko Jaurlaritzak, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.
- e) Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu c) letran aipatutako irizpide bakoitzari urtero esleitutako zenbatekoak, urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.
- f) Toki-erakunde bakoitzari enplegu-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularraren aginduz egingo zaio esleipena, urte bakoitzeko lehen hilabetean. Ordainketa aldi bakar batean egingo da, martxoaren 1a baino lehen.

3. 10.000 biztanletik beherako udalerriei eta toki-erakundeei baliabide ekonomikoak esleitzeko, honako arau hauek beteko dira:

- 2.000 biztanletik beherako udalerriak eta toki-erakundeak:
(langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,2
- 2.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak:
(langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,4
- 5.001 eta 7.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak:
(langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,6
- 7.001 eta 9.999 biztanle arteko udalerriak eta toki-erakundeak:
(langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,8

Langile-, material- eta gauzatzeko-kostuak aurreko paragrafoko c) apartatuan aurreikusitakoan berdinak izango dira».

Funts horri dagokionez, hau da aipatzekoa: memoria ekonomiko horrek aurreikusten du funts horren hasierako kostua 7.435.058 eurokoa izango dela urtean. Estimazio hori justifikatzeko, planak sortzeko eta sortutako planei jarraipena egiteko gastuak jasotzen ditu memoriak; 23.000 euroko kostu lineala eta 104.095 euroko langile-kostuak finkatzen dira horretarako. Egokia da kalkulu hori eragin duten parametroak islatzea. Gure ustez, kostu hori aintzatesteko modulu finko bat ezartzeak, nolahi ere, hori bermatzen duen txosten tekniko baten babesa izan beharko luke. Kostu horiek biztanleriaren arabera gehitzen diren zuzenketa-koefizienteen bidez handituko direla aurreikusten da; 200.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, koefiziente hori 3rainokoa izan daiteke.

Parametro horietan oinarrituta, memoria ekonomikoak 127.095 euroko (23.000 + 104.095) gastu unitarioa islatzen du, EAEko udalerrien biztanleriaren errealitatea kontuan hartuta (zifra horiek zehazteko iturria edo data zehaztu gabe) kalkulaturako kopuru osoa ateratzen duena, eta ohartarazten du zenbateko horrek kostu burokratiko baina ez diela erreparatzen, eta alde batera uzten du Plan horrek ezarri beharko diren jarduketan zerrenda bat zehaztuko duela; gure ustez, horiek formulatu eta onartzen dituzten toki-erakundeek finantzatu beharko lituzkete.

Memoria horrek, funtsaren zenbatespena zehazteko, inola ere ez du ez aipatzen ez kontuan hartzen zeintzuk diren bi urtez jarraian % 10etik gorako langabezia-tasari eutsi diotelako behartuta dauden udalerrak. Kasu horrek, halaber, enplegurako eta tokiko garapenerako planak onartzeko betebeharra ezartzen du. Kasu horren ikuspegi bat erantsi beharko litzateke, eta aurreikuspen horretatik eratorritako kostu zenbatetsia sartu.

Aurreikusitako mekanismoari berari dagokionez, nabarmendu behar dugu funtsak iragankorra izateko bokazioa duela; izan ere, 4/2021 Legearen

aipamenak, xedapen iragankor baten bidez sartzeaz haratago, bokazio hori babesten du.

Horri dagokionez, toki-erakundeak finantzatzeko neurri iragankor gisa sartzeko proposamenak, baldin eta ekarpenen legearen bidez baliabideetan duten partaidetza-ehunekoa aldatzen bada betiere, ez dator bat Ekonomia Itunetik datozen baliabideetan tokiko partaidetzaren ereduarekin; izan ere, toki-enplegurako eta garapenerako planak egitera behartuta dauden toki-erakundeen taldearen osaera baliteke desberdina izatea urte batetik bestera, balitekeelako biztanleria ez ezik, langabezia-tasa ere aldatzea, edo are bi adierazleak ere Gainera, Funtsa lurraldeen artean banatzea ez dator bat baliabideak banatzeko barne-ereduarekin, koefiziente horizontalen arabera. Horregatik guztiatik, koherenteagoa da bigarren xedapen iragankorra ezabatzea, Ekarpenen Legea ez aipatzea eta Aurrekontu Orokorretan urteko finantzaketa bat ezartzea, funtsen transferentziaren bidez, legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten toki-erakundeei.

Finantzaketa horri dagokionez, salbuespenezkoa da, eta erakundeen finantzaketaren esparruan kokatuko litzateke; beraz, ez dugu eragozpen handiagorik ikusten finantzaketa hori dirulaguntzen araubidetik kanpo uzteko. Alabaina, horretarako bideratutako baliabide publikoen jarraipena eta kontrola egiteko mekanismo bat ezarri behar denez, baliteke interesgarria izatea legedi hori ordezkoko gisa hartzea, dagozkion zenbatekoak zehaztu eta kudeatzeko, transferentziaren izaera galdu gabe betiere.

Horri dagokionez, horretara behartuta daudenek Planak eratzea bera edo finantzatzen diren Enplegu Planen kalitatea bermatze aldera, egokitzat jotzen dugu ordaindutako zenbatekoak benetan justifikatzea beharrezkoa dela ezartzeko aurreikuspen bat sartzea, Funtz honen bidez horien gainfinantzaketarik edo xedearekin zerikusirik ez duen helbururik gertatzen ez dela bermatze aldera.

Funtz hori ezartzeko, eskumena duen sailak, ekitaldi bakoitzerako Aurrekontu Orokorren lege-aurreproiektua egiterakoan, kontzeptu

horrengatiko finantzaketa-proposamena egin beharko du, beharrezko den zuzkidura gehituta.

IV. GAINERAKO ARTIKULUEN BESTE ALDERDI BATZUEN ANALISIA.

1. Enplegarritasuna hobetzeari lotutako eskubide subjektiboak

LANBIDEn inskribatutako pertsona guztiei aitortutako eskubide subjektibo horiek, 9. artikuluan zerrendatutakoak, honako hauek dira: laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia izateko eskubidea, enplegarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala izateko eskubidea, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko eskubidea –erabiltzailearen parte-hartzearekin–, eta lanerako prestakuntzarako eskubidea.

Eskubide horiek betearazteko zeregina Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari esleitu zaio (gainera, erabateko eraginkortasunerako beharrezkoak diren egokitzapenak bermatzeko betebeharra ere ezartzen zaio), eta profesionalen esku-hartzeari lotuta geratzen dira, haiek betearazteko; are gehiago, epe zehatzak ere ezartzen dira horiek betearazteko, finkatutako baldintzetan betiere.

Diagnostiko pertsonalerako eskubidearen kasuan, 48 profesional beharko direla zenbatetsi da, eta honako hau gehitu: «*Eskubide subjektibotzat hartuta, arau honen esparruan diagnostiko pertsonala egiteak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada “Dimensionamiento de LANBIDE-SVE 2022” izeneko dokumentu erantsian LANBIDErantzat identifikatutako zuzkiduren bolumena*».

Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua egiteko eskubidearen kasuan, memoria ekonomikoan adierazten da 192 profesional beharko direla, eta, horri dagokionez, honako hau gehitzen da: «*Eskubide subjektibotzat hartuta, arau honen esparruan plan integratu eta pertsonalizatua egiteak ekarriko duen eragin ekonomikoa deuseza izango da, baldin eta kontuan hartzen bada “Dimensionamiento de LANBIDE-SVE 2022” izeneko dokumentu erantsian LANBIDErentzat identifikatutako zuzkiduren bolumena*».

Bi kasuetan, Memoria ekonomikoak 100.000 euroko kostu orokorraren estimazioa egiten du, funtzionamenduko lehen urterako, aholkularitza espezializatuko zerbitzuetan. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

- a) Eskubide horien eragin ekonomikoaren analisi osoak kontuan hartu behar zituen aurreikusten diren guztiak, eta, hala zegoanean, eskubide subjektiboaren ikuspegitik aintzat hartu ez arren gaur egun dagoeneko ordaintzen ari diren neurrien eraginik eza aipatu behar zen (horien prestazioaren egungo kostuari dagokionez). Analisi hori ez dagoenez sakonki egina, ohartarazpen bat egin behar dugu horri buruz; izan ere, hura EELAk enplegarritasuna hobetzeko proposatzen dituen gainerako eskubide subjektiboetara hedatzeko eskatu behar dugu. Horri gagozkiola, adierazi behar da eskubide horietarako eskubide subjektiboaren izaera berria oso-osorik bete beharko dela, haren eremu subjektiboan dauden pertsonak hala eskatzen badute. Horrenbestez, eskubide hori betetzeko behar diren zenbatekoak esleitu beharko dira sistematikoki, konfiguraturuta dauden baldintzetan.
- b) Eskubide subjektiboaren irismenari dagokionez, EELaren 9. artikulua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatutako pertsonak aipatzen dituen gero hartzaile gisa, eta kontuan izanik Memoria ekonomikoak Lanbiden (2022ko apirila) 326.001 eskatzaile aipatzen dituela, ahaztu gabe zifra horren inguruan ñabartu behar dela eskatzaile batek 6 okupazio eska ditzakeela, adierazi behar dugu egokia dela inskribatutako pertsona

fisikoen kopuru zehatza adieraztea (guztira 95.237 langabe daude 2022ko 1. hiruhilekoan, baina ez du adierazten zein den inskribatutako pertsonen benetako kopurua), EELAk aitortzen dizkien eskubide subjektiboak emateko erreferentzia izanik. Memoria ekonomikoan jasotako kalkuluen arabera, 115.000 langabe daude (57.500 urteko), baina datu hori ez dator bat Memorian bertan agertzen direnekin, eta, ondorioz, baliteke premien zenbatespena desitxuratuta egotea.

- c) Behar diren langileei buruzko zenbatespenak, aurrekontu-inpaktu ekonomikoa agerian uzten duen kostu benetako eta errealik ez kontuan hartzeaz gain, ez du zehazten premia horiek lanbide-kategoria bererako edo hainbat kategoriatako planoan jasotzen diren edo, aurrekontu-kostu ekonomiko horren arabera.
- d) Langileen estimazioak ez du zehazten gaur egun Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan zerbitzuak ematen dituzten langileen berrantolaketarekin jada aseko ote diren edo, hala badagokio, kasuan kasuko bideen arabera ezarri beharko diren premia berriak ote diren. ZPEP bat izanik ere, horretarako aurreikusten diren aurrekontu-eskuragarritasunetara egokitu beharko da.
- e) «Garapen instrumentalengatiko» kostuak «EESaren erakunde eta zerbitzuen mapa (100.000 euro) sortzeko» aurreikusitako partida globalaren barruan sartzea ez dirudi egokia denik, eskubide subjektiboen garapen instrumentalengatik kalkulaturako kostuak berariaz jaso beharko liratekeelako xede horretarako, ezarpenaren hasierako faseari legozkiokeen koiunturazko gastuak eta horien mantentze, jarraipen eta ebaluazioagatik geroago sortu litezkeen egiturazko gastuak bereizita. Gure ustez, egokia da memoria ekonomikoak kostu horiek behar bezala islatzea, kostu horiek bereiziz eta kostu koiunturazkoen eta egiturazkoen ikuspegia eskainiz, kostu horien ekonomia- eta aurrekontu-bideragarritasuna egiaztatze aldera. Gure ustez, hasiera batean beste kontzeptu batzuk biltzen dituzten 100.000 euroetan sartu direnez, kalkulaturako kostua zifra horien barruan egon beharko litzateke, eta, beraz, horretarako

identifikatzen diren programen barruan finantzatuta daudela ulertu behar da (3211, 3231 eta 3110 programak).

- f) Nolanahi ere, ZPEP berriaren estatutuak onartzeak, gauzatzen bada, haren jardueren hasiera zehaztuko du, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua une oro egongo denez operatibo, uste dugu mekanismo iragankor bat antolatu beharko litzatekeela, etorkizuneko Enpleguaren Euskal Legeak aldarrikatzen dituen eskubide subjektiboen eskaria Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak indarrean sartzean izango dituen zuzkidura eta bitarteko eraginkorrekin egokitze aldera. Gure ustez, Legea indarrean hastea eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari Lege hori betearazteko zuzeneko agindua ematea, eraldaketa juridiko baten eraginpean ote dagoen alde batera utzita, behar bezala jaso beharko litzateke, eta giza baliabideak eta baliabide materialak berrantolatu beharko lirateke, behar bezala bete daitezten.

2. EESaren eraketa eta funtzionamendua

Ekimen horrek eragin erlatiboa du aurreproiektuaren antolaketa-ikuspegian, eta administrazioen arteko lankidetzarako eta elkarlanerako mekanismo egonkor bat sortzea aurreikusten du, enpleguaren arloan nortasun juridikorik ez duena (bereziki aipatzen ditu EELaren 24. artikuluan eta hurrengoetan zehazten diren «zerbitzu-zorroa», enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarriak, eta 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kideek enpleguaren arloan adostutako edozein ekintza).

«Sare» horren osaera partzialki zehaztuta dago EELAn; izan ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, foru-aldundiak, toki-erakundeak eta dagozkien sektore publikoetako erakundeak eta zerbitzu-zorroa kudeatzen duten erakunde laguntzaileak dira sare horretako kide. «Sarean» sartzeko prozedura erregelamendu bidez finkatuko da etorkizunean (EELaren 19.1 artikulua), eta interesdunak eskabidea egin beharko du, enplegu-

esparruan eskumena duen sailak berriazko ebazpena eman beharko izateaz gain (19.2 artikulua).

Antolamenduari gagozkiola, «sarea» sortzeak garrantzi mugatua du; izan ere, EELAn adierazten den bezala, sareak ez du nortasun juridikorik, administrazioen arteko harremanen eremuan tratamendu juridiko espezifikorik ez duen mekanismoa izanik. Izan ere, harrigarria da administrazioen arteko lankidetzeta eta elkarlanerako baliabide gisa eremu horretatik kanpoko subjektuak txertatzeko aukera aurreikustea, zerbitzu-zorroa kudeatzen duten erakunde laguntzaileei dagokienez.

Sare hori ezartzearen alderdirik garrantzitsuenaren sarean sartzeak dakartzan betebeharrak finkatzea da, batez ere EELAREN 20. artikuluan, eta bertan jasotako beste alderdi batzuekin osatzen dira horiek (adibidez, EELAREN 35. artikuluan finkatutako pertsona eta entitate erabiltzaileen eskubideak bermatzeko konpromisoarekin).

Memoria ekonomikoaren arabera, 500.000 euroko kostua izango du «EESaren sorrerak eta funtzionamenduak» (funtzionamenduko lehen urtean). Kostu horri egozten zaio «protokoloak zehaztea, prozedurak prestatzea, funtzionamendu harmonizatua zehazteko administrazio-informazioko sistemak sortzea»; gainera, gehitzen ditu, batetik, identifikazio- eta jabetza-elementuak, eta bestetik, «gutxieneko erregelamendu-garapen bat, honako hauek barne hartuta: sarearen berriazko intraneta, zerbitzuen eta tresnen eskuliburuaren garapena, gutxieneko jarraipen- eta auditoretza-sistemak, logotipoak eta seinaleak, barne-arreta eta -laguntza, koordinazio-prozesuak, harrera-jarduerak, kide izateko konpromisoa eta sarea osatuko duten erakundeetan aldaketak kudeatzeko aukera emango duten guztiak».

Aurreikuspen horiek agerian uzten dute EESa sortzeko oinarri diren lankidetzeta- eta elkarlan-eginkizunetatik haratago joateko arriskua; izan

ere, zeregin jakin batzuetan aritzeak ezin du ordeztu administrazio publiko bakoitzari dagozkion eskumenak benetan gauzatu beharra.

EES horren funtzioak behar bezala zedarritzeaz gain, kostuen zenbatespena EES horren gehieneko irismenera –nola benetakora hala potentzialera– doitu behar da, eta, nolana ere, argi utzi behar da zein izango den haren ondoriozko kostuen finantzaketa-bidea. Ez dirudi onargarria inplikaturako administrazio publiko guztiei dagokien baliabide den heinean administrazio publiko horietako batek bakarrik finantzatzea, halako moldez non, gure ustez, finantzaketa-mekanismo bat antolatu behar baita parte hartzen duten guztientzat, eta, horrela, zerbitzuak emateko onuradun diren jarduketengatik kostuak ordaindu behar dituzte. Ildo horretatik, bidezkoa dirudi 20. artikuluko betebeharren zerrendan sartzea EESaren esparruan hartutako neurrien kostuak finantzatzeari dagokiona, haren zereginak adostutako baldintzetan ezartzeko.

Aurrekoaren ildotik, EESA osatzen duten erakundeek zerbitzu-zorroa emateko «leihatila bakarra» sustatuko dutela aipatu behar da. EELAREN 21. artikulua berak leihatila digital bakar bat sortzeko aukera aurreikusten du.

Leihatila digital bakar hori kudeatu eta mantentzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari esleitzeko xedapena jasota egon behar da EESan integratzea antolatzeko lankidetzaren eta elkarlan-hitzarmenean, kudeaketa eta mantentze-lan horren irismena adierazita (bereziki, kanpo-zerbitzuetara joko ote den zerbitzuak kontratatuz, leihatila digital horren kudeaketa eta mantentzea nolakoak izango diren, etab.), bai eta hura finantzatzeko bidea ere.

Beharrezkoa da, beraz, kudeaketa- eta mantentze-betebeharraren esparruan aurreikuspen bat jasotzea, zeregin hori EESeko kide guztiek finantzatu behar dutela alde batera utzi gabe, EESean sartzeko akordioan

itundutako baldintzei jarraikiz betiere. LANBIDEK leihatila bakarrarekin lotuta dagozkion eginkizun horiek gauzatzean, bermatu egin beharko du administrazio publiko integratu bakoitzaren eskumenak erabat errespetatuz eta mugatuz diharduela.

Kontuan hartuta memoria ekonomikoak adierazten duela neurri horrek ez duela eragin ekonomikorik, Hobetzen proiektuaren barruko aurrekontu arruntarekin ordainduko baita, gure ustez, baliabide propioekin ekingo balitzaio ere, leihatila bakarrari egotz dakiokeen kostu hori zenbatekoa den islatu beharko litzateke, eta hori LANBIDEren bidez arlo horretan egiten dituzten zereginak betetzen dituzten kide guztiei jasanarazi beharko litzateke.

EEAOren 22. artikuluan subjektu-kategoria jakin batzuk aipatzen dira orokorki, eta EESa osatzen duten erakundeek horiekin sinatu ahalko dituzte «jarduteko protokoloak, lankidetzak-hitzarmenak eta programa kontratuak, enpleguaren arloko estatuko legerian aurreikusitako baldintzetan. Erakunde horiek aukera izango dute, halaber, dirulaguntzak eta administrazio-kontratuak emateko SPKLn ezarritako araubidearekin bat etorri, eta zuzenbidearen araberrako beste edozein negozio juridiko egiteko». Gure ustez, aurreikuspen hori ezin da berariazko gaikuntzat hartu deskribatutako jarduketari ekiteko, EESeko subjektuek gaitasun juridikoa izan beharko luketelako, azken batean, zuzenbidearekin bat datorren edozein negozio juridiko amaitzeko. Xedapen horrek, errepikaren errepikaz, interpretazio desegokiak ekar ditzake, hala nola dirulaguntzak emateko gaikuntza desegokia interpretatzea edo printzipioz SPKLren mende egon behar ez luketenak haren mende jartzea (horrela, EESean subjektu pribatuak integratu ahal badira egoki irizitako kontratuen harpidetza, SPKLren mende ez daudenean).

Laburbilduz, gure ustez, gai honi buruz gerta litezkeen kasuak zehatz-mehatz mugatzeko zailtasunak eta aurreikuspen orokorrak kontratuei edo

dirulaguntzei buruzko indarreko legeriaren marjinatik kanpoko gaikuntzarik eman behar ez duenez gero, ez dago zertan 22.1 artikulua enuntziatua sartu, eta hura ezabatzea aldezen dugu.

3. EESaren barneko zerbitzu-zorroa zehaztea eta kudeatzea.

Kontzeptu horren barruan, «EESaren barneko zerbitzu-zorro» deritzonaren barruan emango direla aurreikusitako zerbitzuei buruzko hainbat apartatu txertatu dira, eta ulertzen da zerbitzu horiek osatzen dituzten edukiak (24. artikulua eta 28.-33. artikulua) zerbitzu-zorro horren kudeaketari buruzko aurreikuspenekin osatu behar direla, gutxienez (45.-48. artikulua), non EAEko hiru erakunde-mailen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalerrak) eskumenak zehazten baitira.

Baliabide instituzionalen banaketari dagokionez, toki-eremuko eraginaren azterketan adierazitakora jotzen dugu, eta agerian uzten dugu 47. artikuluko (foru-aldundiek kudeatzea) eta 48. artikuluko (toki-erakundeek kudeatzea) aurreikuspenak ez direla eskumen-zedarritze argi gisa azaltzen, baizik eta, aukerako terminoetan formulatu denez, arlo horretan finantzaketa-sistema egonkor bat finkatzeko zailtasuna adierazten dutela, eskumen jakin batzuen nahitazeko egikaritzan oinarrituta. Horri buruzko aurreikuspenek ez dute zalantzarako tarterik uzten; izan ere, arau horiek «kudeatzeko aukera» izateaz gain, aipatutako artikuluek modu berean gaineratzen dute zerbitzu horiek borondatez emango direla.

Foru-aldundientzat eta toki-entitateentzat desberdinak dira borondatezko prestazio-eginkizun horiek, eta foru-aldundiei ahalmena ematen zaie honako zerbitzu hauek emateko: Lanerako prestakuntza, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako plangintzaren eta programazioaren esparruan, titulazio, egiaztapen edo ziurtagiri ofizialetara bideratuta ez dagoen prestakuntza programatu eta eman ahalko du, betiere dagokion lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialarekin lotuta badago, lurraldeko

lan-merkatuan garrantzitsua bada, baita bazterkeria-egoeran edo bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsonen zuzendutakoa ere.

Ohartarazten da ezen, xedapena irakurrita, Eusko Jaurlaritzak onartutako plangintza- edo programazio-esparru baten eraginpean geratzen direla eta «eta» ondoren zehazten diren funtzioak, eta horrek eragina izan lezakeela funtzio horiek modu egonkorrean betetzean. Gainera, plangintzaren izaera juridikoak ez luke eskumen-zedarritzea ahalbidetu behar, eta horrek, gainera, lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekin duen loturarekin, dagoeneko foru-erakundeei baitagokie hori, indarreko eskumen-esparruan eragiten du.

Eskumen-finantzaketaren ikuspegitik, aurkako balorazioa egin behar diogu kontuan hartutako aukerari, zeinean inplikaturako zerbitzuen hautazko izaerak, zerbitzu horiek emateko erantzukizuna lausotzeaz gain (baldin eta beren borondatez eman behar dituzten erakundeek ematen ez badituzte edo emateari uzten badiote, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari nola egokituko zaizkion edo nola antolatuko duen zerbitzu horiek emateari uztea, ondoren horiek betetzea erabakitzen dutenean), eragin negatiboa baitu erakundearen arteko finantzaketa-sistema egonkor bat ezartzeko garaian (bete behar dituzten funtzioetan aritzeko baliabide egokiak bermatuko ditu horrek). Zedarritze-eskema argi eta nabarmen baten arabera soilik berma daiteke finantzaketa-eskema egonkor bat, administrazio eskudunak prestazioa emango duela eta horretarako baliabideak izango dituela bermatze aldera. ETELeK, toki-erakundearen kasuan, salbuespenezkotzat diseinatu duen finantzaketa-mekanismo batera jotzeko aukera ez litzateke naturaltasunez hartu beharko Jaurlaritzak formulaturako lege-proiektuetan, premia biziko kasuetan izan ezik. Horrek guztiak ez du esan nahi foru-aldundiek finantzaketa-mekanismo argirik ez dutenik, toki-erakundearen pareko kondizioetan, baina alderdi hori ez da aztertzen.

Beraz, borondatezko zerbitzuak emateari dagokionez aurreikusitako eskumen-esparrua berriz aztertzea iradokitzen dugu, EAEko maila instituzional guztietarako mugaketa argi eta egonkor homogeen bat finkatuz, finantzaketa-esparru argi bat ahalbidetzeko eta horien guztien artean oinarrizko egonkortasuna egongo dela bermatzeko.

4. EESaren mapa.

Aholkularitza-zerbitzu espezializatuen aurreikuspen hori 100.000 eurokoa izango da funtzionamenduko lehen urterako, eta kontuan hartu beharko du foru-aldundiek eta borondatez zerbitzuak emango dituzten udalerriek benetan zer zerbitzu ematen dituzten. Aldian behin eguneratzea aurreikusten den heinean, uste dugu ez dela egiturazko kostua izango, egoeraren arabera baizik, eguneratze sistematiko eta egonkor baten alde egiten denean izan ezik. Nolanahi ere, ulertzen da denborak aurrera egin ahala kanpoko kontratazioaren beharizanak zerbitzu teknikoekin eta administrazio-egituraren gainerako baliabideekin konpondu ahalko direla.

5. LANBIDEK eman beharreko beste zerbitzu batzuk

Zerbitzu horien artean daude enplegurako orientazio-zerbitzuak (triajea, diagnostiko pertsonalizatua, plan integratu-pertsonalizatua eta enplegu-zentroen arreta), laneko lanbide-heziketakoak, laneko lanbide-heziketakoak, bitartekotzakoak eta enpleguakoak, autoenplegurako eta ekintzailtzarako aholkularitzakoak eta lan-merkatuari buruzko informaziokoak.

Zerbitzu horiek garatzeko behar diren langileen aurreikuspenak espedienteen ageri den «Dimensionamiento de LANBIDE-SVE 2022» dokumentuan jasotzen dira. Dokumentu hori ezin da kontuan hartu LANBIDE-EEZren lanpostu-zerrendan jasotakoaren gainera, bereziki, 2023rako EAEko Aurrekontu Orokorren Legean jasotako 2023rako

aurrekontu-plantillan jasotakoaren gainetik. Horrez gain, zaila da jakitea dokumentu horretan adierazitako beharrianak LANBIDE-EEZk 2023rako bere aurrekontu-plantillan dituen egungo zuzkidurek edo aurreikusitakoek betetzen dituzten edo, aitzitik, gaur egun aitortutakoez gainerako zuzkidura gehigarri berriak diren (benetako kostu gehigarria ekarriko luke horrek).

Beharrezko den garapen instrumentaletarako aholkularitza-kostuei dagokienez, Memoria ekonomikoak HOBETZEN proiektuari buruzko aipamen orokorrak egiten ditu, eta, beraz, proiektu horren finantzaketa Lanbideren aurrekontu arruntean sartuko den erreferentziaren bidez aurreikusten da. Horri dagokionez, egiaztatu da EAEko 2023rako EAEko Aurrekontu Orokorren Legeak 1.322.667 euroko zuzkidura jasotzen duela proiektu horretarako, 2. kapituluaren (funtzionamendu-gastuak) kargura. Alabaina, HOBETZEN proiektura jotzeak ez du esan nahi EELAn jasotako neurrien kostuen zenbatespen banakatua egin behar ez denik; beraz, beharrezkotzat jotzen da memoria ekonomikoak bere xedeari erantzutea, kostu bakoitza xehatuz eta erabilitako kalkulu-metodologia zehatuz. Horregatik, espedientean dagoen informazio-gabezia hori konpon dadila eskatzen dugu, dagokion banakatze arrazoitua barne.

V. ONDORIOA

Kontrol ekonomiko-normatiborako izapidean Enpleguari buruzko Euskal Legearen aurreproiektuari buruz esan daitekeen guztia kontuan hartuta, txosten hau eman dugu, hainbat ohar biltzen dituena, eta aurkako iritzia dugu LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA erakunde autonomoa zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtzeari eta bigarren xedapen iragankorrean jasotako Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetzaren Funttsaren erregulazioari buruz.